

## **Balorezko proposamena**

Hasteko, gure produktua definituko dugu, hau da, bere itxura, materialak... azalduko ditugu, baita belarritakoak horrelakoak izatearen arrazoia ere bai. Beraz, sozietatean dauden arazo bati aurre egitea da gure helburu nagusia, eta gainera, pauso bat aurrera ematen saiatuko gara, arazo horrez gain, jendeak benetan gustuko duelako produktua erosten lortuz.

Hasiera batean, esan bezala, sozietatean arazo bat identifikatu dugu, eta gure belarritakoak salduz saiatuko gara ahal dugun pertsona gehienei bizitza pixka bat errazagoa egitea. Betidanik egon da jendea belarritakoekin arazoak eduki dituen. Hauetako bat jartzerakoan bere gorputzak erreakzio alergiko bat edukitzen duelako, eta kasu askotan oso deserosoa eta mignarria izan daiteke. Eta honi aurre egiteko, gomazko belarritakoak egitea pentsatu dugu.

Idea pentsatu genuenean arazo batzuk izan genituen erabiliko gukeen materiala ondo identifikatzeko, izan ere hainbat aukera izan genituen buruan, baina azkenean gomazkoak izatea pentsatu genuen. Erabaki honen arrazoia oso sinplea da, material arina, merkea, eta modifikazioak egiteko erraza da, gainera, helburu nagusia betetzen du, pertsonen alergia arazoak konpontzea alegia.

Beste alde batetik, pentsatu genuen ideia ona izango litzatekela belarritakoek esanahi edo sentimendu bat adieraztea, eta horregatik, herrialde desberdinen banderak, hainbat ideologien ikurrak... erabiliko ditugu gure produktua apaintzeko. Gaur egun jende askok erabiltzen ditu beraien herrialdea errepresentatzeko hainbat pulsera edo apaingarri, eta ideia oso ona iruditu zitzaigun belarritako batzuetan ezartzea kontzeptu hau, jende askori erakar diezaiokegulako.

Eta, belarritakoetan modifikazioak edo marrazkiak egiteko, modelo egoki bat aukeratzea ezinbestekoa da. Badaude hainbat eta hainbat motatakoak, eta ez du zentzurik horietako batzuk aukeratzea, apaindu ahal izateko lan handiegia egin behar da, eta gainera estetikoki ez dute hainbeste atenzioa deitzen. Horregatik, borobil nahiko handiko belarritakoak aukeratu ditugu (dilata faltsuak ere deituak) estetikoki gure ideiarekin hoberen egiten dutelako bat, eta gainera lana egiterako orduan, askoz ere errazagoak dira bertan marrazkiak egin ahal izateko.

